



ALDE ZAHARREAN BIZI NAZ:

Baimena lortzeko alde zaharrear erroldatuta egon behar naiz? **BAI**

Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **BI**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **BAI**

Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat zama lanetarako? **30 MINUTU**

***Alde zaharrear erroldatuta dauden 65 URTETIK GORAKOAK, MENPEKOTASUN EGOERAN EDO GAIXORIK daudenak:** Ibilgailu baimendurik ez duten bitartean, beste pertsona baten ibilgailua baimendu dezakete Alde Zaharrear erroldatuta egon ez arren, **gehienez baimen bi.**



ALDE ZAHARREAN BAIMENDU EDO ONARTUTAKO GARAJE-LEKUREN BAT DUT:

Baimena lortzeko alde zaharrear erroldatuta egon behar naiz? **EZ**

Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **KOTXE BI eta motor bat**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **EZ**

Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat alde zaharrear egoteko? **Sartu eta irteteko behar duzuna.**



OINEZKO GUNEAN, JARDUERA EKONOMIKO BAT DAUKAT

Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **BI**

Ibilgailu horiek alde zaharreko helbide horretan agertu behar dira udal erroldan? **EZ**

Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Zenbat denbora daukat zama lanetarako? **30 MINUTU** ***lanaren arabera aztergai**



OINEZKO GUNEAN, LANEAN NAGOEN GREMIO BAT NAZ

Zenbat ibilgailu baimendu ditzaket? **BI** *Ibilgailu gehiago behar izanez gero, obra baimenari lotuta egongo dira ibilgailu horiek.*

Zenbat aldiz sartu naiteke? **BEHAR BESTE**

Aparkatu dezaket? **Bai.**

Arana tar Sabin-en plazako aparkalekuetan, gremiokoek, igande, jai egun eta asteartean (azokatxo dagoenean) izan ezik, aparkatzeko aukera izango dute, gehienez ordu betez.

***Gremioen ibilgailuak enpresen errotulazioa izan beharko dute.**

***HERRITIK KANPOKO ENPRESEK obra baimena eskatzerakoan,** erabiliko dituzten ibilgailuak adierazi beharko dituzte.

BEREZITASUNAK: Nahiz eta Alde Zaharrear erroldatuta egon ez **BIGARREN BIZITETXERAKO** (oporrak, asteburuak, ea.) Alde Zaharrear dagoen etxebizitza baten **jabeek** ibilgailu bat baimendu dezakete.

NOBEDADEAK! **ASTELEHENETIK ZAPATURA, GOIZEKO 8:00ETATIK 13:00TARA,** zamaketa lanak egiteko, Alde Zaharrera **SARBIDE OSOA** izango da, baimenduta egon zein ez.

